

IDUren engranajeak (The UDL Gears)

Loui Lord Nelson, Ph.D.



Ilunabarrak egunero desberdin dirudien moduan, Irakaskuntzarako Diseinu Unibertsalak (IDUK) ere, erabiltzen den bakoitzean, desberdina dirudi baina batak eta besteak badituzte aurreikus ditzakegun jarraitasunak.

IDUren jarraitasunak ulertzeko, berrikusi osagai bakoitza pentsamolde, praktika eta trebetasunen arabera eta ikertu gako-hitzak.

Pentsamoldea

IDUren pentsamoldearekin lerrokatutako irakaskuntza-arduradunak:

- *Edozein ikaslek ikasi ahal duela sinesten du.*
- *Ikasle bakoitzari balioa ematen dio.*
- *Ikasle guztien gaineko itxaropen handiak ditu.*
- *Ikasle guztiek bere adinkideekin ikasi behar lukeela sinesten du.*
- *Bere burua ikasle gisa ikusten du.*
- *Enpatikoa da ikasle guztien premiekin.*
- *Gauza berriak probatu, akatsak egin, hausnartu, berrikusi eta berriro saiatu behar duela daki.*
- *Aholkulariak bilatzen ditu.*
- *Sistematikoki bere irakasteko eran aurrera egiteko bide berriak bilatzen ditu.*



- *Sistematikoki ikasleekin duen harremana hobetzeko bideak bilatzen ditu.*
- *Beren ikasleen zaintzaileekin harreman positiboak eragiten ditu.*
- *Ikasle guztiak talde bereko kide sentitu daitezzen lan egiten du.*
- *Ikasteko oztopoak ikasgaian eta ikasteko giroan daudela daki.*
- *Ez dio ikasteko oztopoa ikasleari egozten.*

Trebetasunak

IDUren konpetentziekin lerrokatutako irakaskuntza-arduradunak:

- *Beste batzuekin lankidetzan ari da, trebetasun berriak ikasi eta aplikatu ahal izateko.*
- *Ikasle anitzekin bat egin eta ikasle anitzei irakasten die.*
- *Ikasle guztientzako inklusiboa den irakaskuntza ematen du.*
- *Era proaktiboan edozein ikaslek aurki ditzakeen oztopo emozionalak edo akademikoak identifikatzen ditu.*
- *Irakasteko asmo/helburu jakin bati begira atontzen du lortu nahi duen emaitza.*
- *Ikasleek uler eta lor ditzaketen asmo/helburu argiak ezartzen ditu.*
- *Ikasle bakoitzarentzako, irakasteko asmo/helburua lortzen ari denean, laguntza emateko material eta metodo anitzak identifikatzen ditu.*
- *Aldi berean antolatu daitezkeen teknika, estrategia eta metodo anitzez osatuta, irakasteko saioak gidatzen ditu.*
- *Gidatzen dituen irakaskuntzak lagundu egiten die ikasleei euren asmoak/helburuak lortzeko erabaki zuzenak har ditzaten.*
- *Asmoarekin/helburuarekin lerrokatuta eta ikasleen ezagutza eta trebetasunak neurtzeko era askotariko ebaluazio hezigarrirako tresnak sortzen ditu.*
- *Ikasle guztien emaitzak asmoetara/helburuetara bideratuta daudela ziurtatzen duten metodo eta materialak berraztertuz, ebaluazio hezigarria egiten du.*
- *Ebaluazio hezigarriaren emaitzak ikasleen interesa, ekina eta motibazioa suspertzeko erabiltzen ditu.*
- *Irakaskuntzan zehar aukeratu izan dituen metodo eta materialak berraztertzen ditu, unean-uneko oztopoak gainditzeko asmoz.*
- *Zailago diren kontzeptu, trebetasun, ataza eta edukiak urrats eta osagai txikiagotan bereizten ditu. Behar izanez gero, errepresentatzeko era anitzak eskaintzen ditu.*

- *Asmoarekin/helburuarekin lerrokatuta eta ikasleen ezagutza eta trebetasunak neurtzeko era askotariko ebaluazio sumatiborako tresnak sortzen ditu.*

Praktikak

IDUren praktikekin lerrokatutako irakaskuntza-arduradunak:

- *Praktika inklusiboak erabiltzen ditu.*
- *Ikasle guztien beharrianak betetzeko planifikatzen du eta ikasle guztien beharrek bat egin nahi duen irakaskuntza ematen du.*
- *Ikasle guztiak hezkuntza orokorrera gonbidatu eta harrera ematen die.*
- *Oztopo akademikoak gainditzeko asmoaz, hauek modu proaktiboan identifikatu eta aurreikusitako egiten ditu.*
- *Oztopo akademikoak gainditzeko ahalegintzeko metodoak eta materialak erabiltzen ditu.*
- *Hezkuntza orokorrean, etengabe, ikaskuntza ekitatiboa eskaintzen du.*
- *Esparru akademikotik kanpo ere, ikasleek dituzten oztopoak identifikatu eta*
- *esparru akademikoarekin lotutako oztopoak zuzentzeko metodo eta materialak erabiltzen ditu.*
- *Oztopo sozial/emozionalak modu proaktiboan identifikatzen ditu eta oztopo sozial/emozional/kulturalak gainditzeko metodo eta materialak erabiltzen ditu.*
- *Hezkuntza orokorrean konpromiso sozial ekitatiboa sistematikoki erakusten du.*
- *Ebaluazio formatiboa irakaskuntza hobetzeko tresna gisa indartzen du.*
- *Ebaluazio sumatiboa ezagutza eta trebetasunak era anitzetan hobetzeko tresna gisa indartzen du.*
- *Ikaslearen irteera-profilak IDUk ezarritako ikasle adituaren lorpen mailarekin bat egin behar du.*
- *Ikasleen ekarpenei adi egon eta erantzun.*

IDUren jarraibideak

CASTen IDUren jarraibidetako informazioak irakaskuntza-arduradunen erabakiak gidatzen ditu, irakaskuntza-metodoak eta materialak hautatzeko, eta ebaluazioak sortzerako.

Gako-hitzak:

Ikaslea ikasketa prozesuan parte hartzen duen edonor da, adina kontuan hartu gabe.

Oztopoa inori ikasten eragozten dion edozein ekintza, objektu fisiko, baliabide, objektu falta, baliabide falta edo uste inposatua izan daiteke.

“Ikasle adituak” esapidea hauxe deskribatzeko erabiltzen da: IDUrekin lerrokatutako ikasketen eta testuinguruen bidez, ikasleek berezko dituzten edo ikasi egiten dituzten trebetasunen eta ezaugarrien multzo zabala.

Ikasleak, horretara, ziurtasun handiagoz jokatzeko du, motibatuago dago, baliabideak era egokiagoan erabiltzen ditu, adituagoa da, estrategia egokiagoak erabiltzen ditu eta helburuak betetzeko lan egiten du.

Irakaskuntza-arduradunen artean edozein alorretako irakasleak, hezkuntza-administratzaileak, bideratzaileak, produktuen diseinatzaileak eta garatzaileak, unibertsitateko irakasleak, instruktoareak daude eta irakaskuntza planifikatzen eta hornitzen duen beste edozein pertsona.

Honela egin aipua, mesedez: Nelson, L. L. (2023, May 24). The UDL Gears.
<https://theudlapproach.com/theudlgears/>